

• Erabilera:

Gogoan izan 1. eta 2. pertsonaren izenordainak normalean esan gabe uzten direla:

Aitak opari bat ekarri zidan (niri)

Aitak sukaldea jasotzeko esan dizu (zuri)

Enfasia eman nahi denean erabiltzen da izenordaina:

Niri ekarri zidan aitak oparia (ez beste inori)

Zuri esan dizu amak sukaldea jasotzeko, ez niri

ARIKETAK

1. Formak ikasteko, pasa *iraganera* ondoko esaldiak:

1. Ez digu inork galerazi sarrera. → *Ez zigun inork galerazi sarrera.*
2. Sartu naizenean, eskua eman dit.
3. Nork eman dizu Lurdesen helbidea?
4. Ekarki didazuen egunkaria ez da nik eskatu dizuedana.
5. Nork hitz egin dizue, bada, nire aurka?
6. Zure lagunek egin dizutena ez da barkatzekoa.
7. Burla egin didate, baina barkatu diet.
8. Ez zara batere lagun ona: eskatzen dizugunean ez diguzu laguntzen.
9. Galera handia izan da: eskaparatean zegoen guztia lapurtu digute.
10. Eskatzen didazun guztia ematen dizut eta, hala ere, ez zaude konforme.
11. Gehiegi jateak ez dizu onik egin.
12. Opari polita egin diguzue, baina nik beste zerbait espero nuen.
13. Agur egin dizuegu eskuaz, baina zuek ez zarete konturatu.
14. Zergatik ez duzue egin irakasleek agindu dizuetena?
15. Lan gehiegi egiteak kalte egin digu.

2. Bete hutsuneak iraganeko **nor-nori-nork** formak erabiliz, atzizki eta guzti batzuetan:

1. Adizu, Mikel, sekretu asko dituzu nirekin. Zergatik ez ... esan Parisa joatekoa zinela?
2. Oso atseginak izan ziren zure gurasoak. Sartzeko esan ... , kafea hartuko nuela, baina presaka nenbilen eta hurrengo batean joango nintzela erantzun ...
3. Iritsi al da (*nik zuei*) eskatu ... liburua?
4. Eman al dizkiozu eskerrak eskua sendatu ... medikuari?
5. Haserretu egingo zaizkigu beharbada, baina ezin izan dugu amaitu agindu ... guztia.
6. Ez dakit zergatik joan diren zure lagunak gure etxetik. Niri behintzat ez ... inolako trabarik egiten.
7. Badakit atzo zure urtebetetzea izan zela, baina ez ... batere oparirik egin denetik daukazulako.
8. Barkatuko duzu, baina ez ... ordaindu dirurik ez geneukalako.
9. Joan zaitetze poliziagana. Haiek jakingo dute, beharbada, nork ostu ... autoa.
10. Atezainak ostikoa jo ... ; horregatik ez nuen gola sartu.
11. Hotzak geundela ikusi zuenean, kafe beroa eskaini ... zure amak.
12. Istripua izan genuenean, laguntza eskatu ... , baina zuek ez ... kasurik egin.
13. Eskatu ... gehiegi zen; horregatik ez nizuen ekarri.
14. Haiek esan ... guztia gezurra zen eta zuk tonto-tonto dena sinestu zenien.
15. Gurasoek txikitari erakutsi ... ez zait oraindik ahaztu.

3. Euskaratu:

1. No me dijeron nada. Por lo visto, no se fiaban de mí.
2. Cuando me llamaste, estaba en la ducha. Por eso no te contesté.
3. ¿Cuándo me vais a devolver el libro que os dejé el mes pasado?
4. Estoy seguro que no te entendieron nada.
5. Nos mandaron salir rápidamente del tren, pero nadie nos dijo por qué.
6. No sé por qué te extrañas. Bien claro te dijimos que no podíamos hacer nada.
7. ¿Quién os arregló la televisión? Ahora se ve peor que antes.
8. Llamé muchas veces, pero nadie me abrió.
9. Lo que nos contaste estaba muy bien, pero nadie te creyó.
10. Cuando nos llamasteis, os respondimos en seguida.
11. No me hicisteis caso y ahora estáis peor que antes.
12. Ya sé que os trajeron algo, pero no sé qué.
13. No me dejaron entrar.
14. No nos enviaron lo que les pedimos.
15. Carolina nos enseñó a bailar.



I.2. ZIZKIDAN, ZIZKIZUN...

- Objektua plurala denean, **-zki-** morfema hartzen dute forma hauek ere:

	<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiei</i>
nituen		NIZKIZUN	NIZKION		NIZKIZUEN	NIZKIEN
zenituen	ZENIZKIDAN		ZENIZKION	ZENIZKIGUN		ZENIZKIEN
zituen	ZIZKIDAN	ZIZKIZUN	ZIZKION	ZIZKIGUN	ZIZKIZUEN	ZIZKIEN
genituen		GENIZKIZUN	GENIZKION		GENIZKIZUEN	GENIZKIEN
zenituzten	ZENIZKIDATEN		ZENIZKIOTEN	ZENIZKIGUTEN		ZENIZKIETEN
zituzten	ZIZKIDATEN	ZIZKIZUTEN	ZIZKIOTEN	ZIZKIGUTEN	ZIZKIZUETEN	ZIZKIETEN

Adibidez:

- Haginlari ona da; batere minik egin gabe kendu zizkidan haginak
Irakasle berriak nota onak jarri zizkigun
Joan den urtean txiste berak entzun nizkizun

ARIKETAK

1. Pasa pluralera beltzez dauden sintagmak eta aditza:

1. **Edari hotza** eskaini zigun.
2. Nork pagatu zizuen **zineko sarrera**?
3. **Etzeko giltza** eskatu nizun, baina ez zenidan eman nahi izan.
4. Gustatu al zaizue oporretan egin nizuen **bideoa**?
5. Pentsio hartan ez ziguten **arropa** garbitzen.
6. Zuri agindu zizun **botika bera** agindu zidan niri ere.
7. Zuri **erregalu itsusia** egin zizuten, baina niri **guztiz gauza polita** ekarri zidaten.
8. Non jarri behar duzu lehengoan ekarri nizun **koadroa**?
9. Eman zeniguten **berria** ez zen ospatzeko modukoa.
10. Hemen duzue eskatu zenidaten **liburua**.

2. Ariketa honetan, berriz, pasa iraganera esaldiak:

1. Nire lankideek loreak bidali dizkidate.
2. Nork egiten dizkizu etxeko lanak?
3. Ostu dizkizueten bitxi guztiak komisarian dituzue.
4. Esan dizkiguten gauzak ez dira sinestekoak.
5. Zer zor dizuet?
6. Zuek zikindu al diguzue etxe aurrea?
7. Nahi dudan guztia ematen didate.
8. Nik zuri ez dizut ezer eskatu.
9. Zure amak ez digu sartzen utzi
10. Poliziak txistu egin dizuenean, berehala gelditu behar zenuten.
11. Mesede bat eskatu behar dizugu, baina ez gara ausartzen.
12. Eskerrak besotik heldu didazun, eroriko nintzen bestela.



1 Bete itzazu testu honetako hutsuneak, kontestua kontutan hartuta:

PIJAMA BILA

Otxoa doktorea oso gizon despistatua zen. Egunen batean gure etxera etorri behar zuela esan ... lehen goan, nire emazteak ere pozik hartuko zuela. Baietz erantzun ... berehala Otxoak, hurrengo egunean bertan etorriko zela afaltzera.

Eta halaxe etorri zen. Elkarrekin afaldu genuen eta afaria amaitutakoan salara pasatu eta afalondo luzea egin ... , sutondoan bero, kontu kontari.

Etixerantz abiatzeko ordua iritsi zenean, euria gogor hasi zuen. Pixka batean egoteko esan ... nik, baina ez ... kasurik egin.

—Ahul samar zabiltzala esan ... lehen goan zure emazteak —adierazi nion nik, konbentzitu nahian—. Beraz, ez zaizu euritan ibiltzea komeni.

—Hori esan al ... ? Ez egin kasurik, ondo nago-eta.

Euria gero eta gogorrago ari zuen, ordea, eta pixka batean geratuko zela esan Gero, berriz, atertzeko itxurarik ez zuela ikusita, geurean lo egingo zuela esan ... nire emazteak.

Otxoak ez zigun ezezkorik esan eta, hortaz, ohea prestatzera joan ginen emaztea eta ... , hura salan utzita. Itzuli ginenean, ordea, ez zegoen han. Bila hasi ginen, baina ez genuen inon aurkitu. Bere etxera joana izango zela pentsatu genuen. Harritzekoa zen, hala ere, ez bait... inolako notarik utzi.

Kezkatuta geunden eta ez ... zer egin. Handik ordu erdira-edo, oheratzeko-tan ginela, txirrinak jo zuen. Salto batean jaitsi ginen emaztea eta biok. Gure gizona zen, goitik behera bustita.

—Badakizue —esan ... , barkamena eskatuz bezala—, pijama bila joan naiz etxera. Izan ere, pijamarik gabe ez nau loak hartzen.

Jh

—

↪ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

noizpait	hizketan	laster	bukatu eta gero
biharamunean	ez duzu on	harrigarria	jaramon egin

↪ b. Asma ezazu nolako hizketa izan zuten etxeko jaunak eta Otxoa doktoreak etxeratzeko orduan euria ari zuela ikusi zutenean:

Otxoak:	Bueno,	(badoala-eta, agurrak)
Etxekojaunak:	Baina, begira	(euria...)
pixka batean....	(egoteko eskaria)
Otxoak:	Ez, gizona	(ezezkoa...)
Etxekojaunak:	Baina	(osasun kontua)
Otxoak:	Ondo da, pixka batean	(atertu arte...)
Etxekojaunak:	Nahi baduzu,	(bertan geratzeko)
Otxoak:	Ongi da,	(onartzen du)

2 Ordenatu ondoko telefono-hizketa:

- a) —Noiz ekarri zenigun?
- b) —Ezin al didazue etxera ekarri? Autorik gabe nago...
- c) —Ederki, bostak aldera-edo pasatuko gara.
- * d) —Bai, esan!
- e) —Gero arte, orduan.
- f) —Loiola andrea naiz. Lehengoan telebista bat eraman nizuen konpontze-
ra...
- g) —Bueno eramango dizugu. Zer ordutan komeni zaizu joatea?
- h) —Arratsalde osoa pasatuko dut etxean. Beraz, nahi duzunean etor zaitez-
kete.
- i) —'Izarra' telebistak?
- j) —Lehengo ostegunean izan zela uste dut.
- k) —Ostegunean? Hementxe izango da, orduan...Bai, hemen da. Egina dago.
Etorri nahi duzunean jasotzera.
- l) —Bai, hemen da. Nork deitzen du?
- m) —Ondo da, hementxe izango naiz.

I. NOR-NORK IRAGANEAN (1)

- Gogoan duzu, noski, objektua 1. edo 2. pertsona direnean, aditzak forma be-
beziak hartzen dituela :

Ez **nauzu** ezagutzen?
Nahi baduzu, etxera eramango **zaitut**

Mundu guztiak ezagutzen **gaitu**
Nork ekarri **zaituzte**?

Horiek orainaldiko formak dira. Iraganak ere baditu horrelako formak:

Ez **ninduzun** ezagutzen ala?
Ez **zintuen** inork ikusi
Nork ikusi **gintuen**?
Mundu guztiak ezagutzen **zintuzten**

I.1. NINDUEN, ZINTUEN

- Ikaskai honetan, **ni** eta **zu** pertsonak ikasiko ditugu:

			NI		ZU
(nik)	...		—	<i>zaitut</i>	ZINTUDAN
(zuk)	...	<i>nauzu</i>	NINDUZUN		—
(hark)	...	<i>nau</i>	NINDUEN	<i>zaitu</i>	ZINTUEN
(guk)	...		—	<i>zaitugu</i>	ZINTUGUN
(zuek)	...	<i>nauzue</i>	NINDUZUEN		—
(haiek)	...	<i>naute</i>	NINDUTEN	<i>zaituzte</i>	ZINTUZTEN

Adibideak:

➡	Atzo lotsatuta utzi ninduzun	(me dejaste)
	Gorrian pasatzen ikusi ninduen poliziak	(me vió)
	Kalean geratu nintzenean, auzokoek hartu ninduten	(me cogieron)
➡	Aldatua zaude; atzo ez zintudan ezagutu	(no te conocí)
	Nork ekarri zintuen etxera?	(te traje)
	Nora eramán zintuzten lagunek?	(te llevaron)

Oharra:

Aspektuak:	eramán ninduzun	- <i>me llevaste</i>
	eramaten ninduzun	- <i>me llevabas</i>
	eramango ninduzun	- <i>me llevarías/me habrías llevado</i>

ARIKETAK

1. Formak ikasteko, pasa *iraganera* ondoko esaldiak:

1. Maite nauzula esaten duzu, baina ez nauzu zeure etxean hartzen.
2. Zure laguna al da etxera ekarri nauena?
3. Hori esan duzuenean ez nauzue batere poztu.
4. Hobera egin dudanean, gelaz aldatu naute.
5. Nork aukeratu zaitu gure buru?
6. Ez zaitugu guk baztertu, zeu joan zara.
7. Robertoren semea zarela jakinda, pozik hartu zaitut neure lantegian.
8. Ez dago aitzakiarik: zu izendatu zaituzte eta, beraz, zu zara gure alkate.
9. Gogor jo naute, baina nik ez diet hitzik esan.
10. Ohera bidali nau amak, baina ni kalera irten naiz.
11. Gaez ibili behar horrek kezkatzen nau.
12. Aprobatu duzula jakiteak lasaitu al zaitu?
13. Gauero, telebista aurrean jartzen naizenean, loak hartzen nau.
14. Mutil bikaina zaude; ondo mantentzen zaituzte, dudarik gabe.
15. Zu erabat sendatuta ikusteak izugarri poztu nau.
16. Beti presaka eta korrika ibiltzeak ez al zaitu nekatzen?
17. Arrazoirik gabe salatu naute.
18. Alkate aukeratu nautenean, dardarka hasi naiz.
19. Gartzelan ikusi zaitudanean, negarrez hasteko gogoia etorri zait.
20. Haserre nago ez nauzuelako behar bezala hartu.
21. Benetan maite zaituena alaba da.
22. Horren kolore txarrekoa ikusi zaitugunean kezkatu egin gara benetan.
23. Zergatik sartu nauzu istilu honetan?
24. Hori itxura! Ederki astindu zaituzte!
25. Ni maite nautenek ez zaituzte zu maite.

2. Ondoko perpausetan falta diren hitzak *iraganeko nor-nork* formak dira, subordinazio-atzizki eta guzti batzuetan. Bete itzazu.

- 1 Gurasorik gabe geratu nintzenean, aiton-amonek zaindu
2. Ezkongaietan pazientzia gutxiko gizona zinen. Andregaiaren zain egon beharrak urduri jartzen
3. Izugarri harritu ... (*ni*) zure hitzek. Ez ziren errazak sinesten.
4. Eskerrak zeure etxean gorde ... , koska egingo zidan txakurrak bestela.
5. Autobusean sartzera nindoanean, norbaitek ukitu ... atzetik, baina jiratu nintzenean ez nuen inor ikusi.
6. Modu hartan aurkitu ... , izutu egin nintzen; gaixorik zeundela ematen zuen.
7. Eroria nenbilen, baina medikuak agindu zidan botikak zuzpertz egin ... eta orain askoz hobeto nago.
8. Zergatik egin zenuen astakeria hori? Nork bultzatu ... horretara?

9. Gaixo nengoenean, gau eta egun zaindu ... amak.
10. Guztiz larri igo ginen ospitalera zu ikustera. Baina, egia esan, ez ... hain gaizki aurkitu.
11. Gezurra esan zidaten lagunak eta horrek sutan jarri
12. Zuen errua da. Kolperik jo gabe bizitzen ohitu ... eta orain ez dakit ezer egiten.
13. Guztiz urduri nenbilen, baina tila hartu nuen eta horrek lasaitu
14. Orain ohitzen ari zara, baina lehen jendaurrean hitz egin beharrak izugarri kezkatzen
15. Ni tranpan harrapatu nahian ibili zineten, baina ez ... harrapatu.
16. Leku egokian ipini ... guk, baina zu altxatu eta beste leku batera joan zinen.
17. Ni maite ... esaten zenuen, baina besteekin ibiltzen zinen beti.
18. Ezagutu ... , inpresio eskasa egin zenidan. Orain hobeto ezagutzen zaitut eta badakit lehen inpresio hura okerra izan zela.
19. Gurasoek barnetegian sartu ... , zure onagatik egin zuten.
20. Zuen etxera lehenbizikoz joan nintzenean, oso hotz hartu
21. Gurasoek Madrila bidali ... karrera ikastera, baina nik ikasteko gogo gutxi nuen eta ez nuen karrera amaitu.
22. Lotsagabe hutsa zen gizon hura: haren parean pasatzen zinenean, goitik behera aztertzen
23. Lana eskastu zenean, langileak kaleratzen hasi ziren. Ni bota ... aurrena eta gero beste hamar bat.
24. Zure bila ibili omen ziren atzo lagunak, baina ez omen ... inon aurkitu.
25. Eskerrak zuk ezkutatu ... ; harrapatuko ninduten bestela.

